



BANDOA

Krisi eta trantsizio garaian gaude, besteak beste begi-bistako klima-aldaketak eraginda, eta COVID-19aren pandemiaren ondorioz.

Lehengaiak eta erregai fosilak pixkanaka agortzen ari dira; eragin handia dute klima-aldaketan, eta aldaketa horrek ondorio hondagarriak izanen ditu planetarako, NBEko adituen txosten berri baten arabera. Horra hor trantsizio energetikorako arrazoi nagusiak.

Datozen urteotan, Europar Batasunak milaka milioi euro eman nahi dizkie Gobernuari pandemiak eragindako krisi ekonomiko larria arintzeko, hots, "Next Generation" izeneko funtsak dira.

Europar Batasuna, bai eta estatuko nahiz foru gobernuak, energia planifikatu eta garatzeko estrategiak onesten ari dira, guztiak ere trantsizio energetikoarekin lotutakoak, funts horietako dirua jasotze aldera. Nafarroako Gobernuak, zehazki, Nafarroa Green Trantsizio Ekologikorako Estrategia onetsi du. Neurri sorta bat da eta haien artean hauxe dago: "energia sortzeko parkeak ezartzea, energia berriztagarria abiaburu hartuta (parke eolikoak eta eguzki-parke fotovoltaikoak, nagusiki)".

2008ko krisian gertatu bezalaxe, dirutza ikaragarri horien usainean, inbertsio funtsek (putre funtsak esaten zaie), eraikuntza-enpresa handiek, finantza-entitateek, komisionistek eta abarrek merkatu espekulatibo horretan sartzea erabaki dute.

Joan den otsailaren 1etik hona, era horretako 65 proiektu aurkeztu dira tramitaziorako Nafarroako Gobernuan.

Testuinguru horretan, erokeria horrek Oltza Zendea ere eragin dio. Izan ere, eskaera olde handia jaso da parke eolikoak eta eguzki-parke fotovoltaikoak parartzeko.

Aipatu parkeetan sortzen den elektrizitatea azpiestazio elektrikoetara garraiatu beharko da, edo bestela, kanpora esportatu, goi-tentsioko lineen bitartez.

Hori dela eta, ez da kasualitatea REE berriz ere aurkeztu izana 400 kV-ko Goi Tentsioko Linea egiteko proiektua, Muru Artederreta eta Itsaso artean (autopista elektrikoa), gure Zendea zeharkatuko lukeena. Gure Zendea Orkoiengo azpiestazioaren mugan dagoenez, eta azpiestazio hori Aratzuriko lurretan handitu nahi dutenez, ez da dudarik parke horiek gurean ezartzen saiatuko direla, bai gure Zendea, hau da, "Zuloagako Alorrak" parkearen kasuan, Iberoko eta beste herri batzuetako lurretan, bai gure Zendearen inguruan, gure alor eta mendietan garraio elektrikorako dorre kopuru izugarri hori jartzeko. Ez da jasagarria hainbeste parke paratu nahi izatea, gure lurraldea hondatuta eta pribatizatuta. Landa-eremuaren industrializazioa sustatuko litzateke, landa-mundua elektrizitatea ekoizteko eremu bilakatuta, gure lurraldetik kanpo aprobetxatuko litzatekeena. Eredu horrek espekulatzaileri egiten lieke mesede, ingurumenean inpaktu handia eragitearen ordainez eta gure Zendea arriskuan jarrita.

Oltza Zendeako Udala bere esku dauden neurri guztiak hartzen ari da zentzugabekeria hori geldiarazten saiatzeko: alegazioak aurkeztuz, hirigintza arloko arauak emanaz, eraginpean dauden beste udal batzuekin harremanetan jarritz, Kontzejuekin koordinatuz.

Proiektuak ukitzen dituen herrietako bizilagun aunitz beren artean hasi dira antolatzen proiektu erraldoi horiei aurre egiteko, eta tokiko plataformak osatu dituzte.

Udalak, laster, batzar irekirako deialdia egiten du plan horiei buruzko informazio gehiago emateko eta, denon artean, aurrera begira zer ekimen antolatu erabakitzeko.

Hona hemen orain arte energia berriztagarriko aurkeztu diren proiektuak:

Orkoiengo parke esperimental (aerosorgailu 1 Zendea)- Kresada parke eolika (Etxauri)- Aldane parke eolika (Lezaun)- Navarra 4 parke eolika (Esteribar)- Zuloaga parke fotovoltaikoa (Ibero, Paternain, Larraia, Eriete)- Amaia parke fotovoltaikoa 1,2,3,4 (Itza Zendea eta Zizur)- El Soto parke fotovoltaikoa (Undio, Zarikiegi, Asterain). REE red400KV Castejon -Itxaso.

El Alcalde / Alkatea, Moisés Garjón Villanueva



BANDO

Vivimos una época de crisis y transiciones, entre otros factores por el evidente cambio climático y la pandemia de la COVID-19.

El agotamiento paulatino de materias primas y combustibles fósiles, así como su gran incidencia en el cambio climático, de consecuencias catastróficas para el planeta según un reciente informe de expertos de la ONU, son las principales causas de esta transición energética.

La Unión Europea quiere inyectar durante los próximos años miles de millones de euros a los Gobiernos para paliar la grave crisis económica generada por la pandemia, los llamados fondos "Next Generation".

La Unión europea, así como los gobiernos estatal y foral están aprobando estrategias de planificación y desarrollo energético relacionadas con la transición energética, tendentes a recibir el dinero de estos fondos.

En concreto, el Gobierno de Navarra ha aprobado la Estrategia de Transición Ecológica Navarra Green. Se trata de un conjunto de medidas, entre las cuales se recoge "el despliegue de parques generadores de energía a partir de energías renovables (parques eólicos y solares fotovoltaicos principalmente).

Al olor de estas ingentes cantidades de dinero, como ya ocurrió en la crisis del 2008, fondos de inversión (llamados fondos buitres), grandes empresas constructoras, entidades financieras, comisionistas, etc. han decidido entrar en este mercado especulativo.

Desde el pasado 1 de febrero se han presentado ante el Gobierno de Navarra para su tramitación 65 proyectos de estas características.

En este contexto, también la Cendea de Olza/Oltza Zendea se ha visto afectada por esta locura. Se ha recibido una avalancha de solicitudes de implantación de parques eólicos y solares fotovoltaicos.

La electricidad que se produzca en dichos parques deberá ser, o bien evacuada a subestaciones eléctricas, o bien exportarlas al exterior a través de líneas de alta tensión.

Por ello, no es casualidad que REE vuelva a presentar, el proyecto de Línea de Alta Tensión 400 kV entre Muruarte e Itxaso (autopista eléctrica) que pasaría por nuestra Cendea.

Al estar ubicada nuestra Cendea en la muga de la subestación de Orkoiengo, la cual pretenden ampliarla hacia terrenos de Arazuri, tenemos todos los boletos para que intenten implantarnos estos parques, bien en nuestra Cendea como ocurre con el parque "Campos de Zuloaga" en terrenos, entre otros pueblos de Ibero, o alrededor de nuestra Cendea y colocarnos los innumerables postes de evacuación eléctrica en nuestros campos y montes.

Resulta insostenible este despliegue de parques en base a la destrucción y privatización de nuestro territorio. Se estaría fomentando la industrialización del campo, convirtiendo el mundo rural en productor de electricidad que se aprovecharía fuera de nuestro territorio. Un modelo que beneficia a especuladores a cambio de un gran impacto ambiental y que hipoteca nuestra Cendea.

El ayuntamiento de la Cendea de Olza/Oltza Zendea está poniendo todas las medidas a su alcance para intentar parar este despropósito; presentado alegaciones, legislando en materia urbanística, contactando con otros ayuntamientos afectados, coordinado con los Concejales.

Muchos vecinos/as de pueblos afectados han comenzado a organizarse para oponerse a estos macro-proyectos, creando plataformas locales.


Próximamente, el Ayuntamiento convocará una asamblea abierta para dar mayor información de estos planes y entre todos/as acordar las iniciativas a tomar en el futuro.

Los proyectos de energía renovables presentados hasta la fecha son los siguientes:


Parque experimental Orkoiengo (1 aerogenerador en la Cendea)-Parque eólico Kresada (Etxauri)- Parque eólico Aldane (Lezaun)-Parque eólico Navarra 4 (Esteribar)-Parque fotovoltaico Zuloaga (Ibero, Paternain, Larraia, Eriete)- Parque fotovoltaico Amaia 1,2,3,4 (Cendea de Iza y Zizur)- Parque fotovoltaico El Soto (Undiano, Zariquiegui, Astrain). REE red400KV Castejon -Itxaso.

El Alcalde / Alkatea, Moisés Garjón Villanueva

ORORBIA
 (Navarra) (Nafarroa)



ORORBIA
 (Navarra) (Nafarroa)



ALDANE: parque eólico 52Mw (Lezaun, Guesalez, Valle de Yern)
 NAVARRA 4: parque eólico 45Mw (Esteribar, Anué, Olabar)
 NORDEX: prototipo eólico (Cendea de Orla)
 L400-ITXASO-CASTEJÓN
 CAMPOS DE ZULOAGA: planta solar fotovoltaica: 62 Mw (Cendea de Orla)

AMAYA 1: planta solar fotovoltaica 34,97 Mw (Cendea de Iza)
 AMAYA 2 Y 3: planta solar fotovoltaica (Cendea de Cizur)